

LATERRI-ARTEKO ARAZOA

Israel'go lurraldean dagozan Palestin'darren arazoa, ez da ulertzeko erreza, konpontzeko gatxagoa, orregaitiño.

Aurreko zenbakietan erabili dogun jaiari jarraituz, ana emen aita Elias'egaz alkar-izketa bat.

—Zer deritxazue Palestina'ko lurrari begira, Juda'tarrak aitatzin dabezan erlejiño-eskubideai?

—Jainkoaren naia eurak beteten dabela zintzo sinisten daben Juda'tarrak ba-dagoz eta eurai buruz antxiñako igarleen igarkizunak beteten dagozela uste dabe. Olako zerbait esaten dabe: «Millaka urte dirala Jaungoikoak emon euskun lur au, orregaitik gatoz ona barriro. Palestina'tar itsu ta aurpegi-gogor oneik ez dauke eskubiderik emen egon edo geratzeko».

Baiña Juda'tarrak ona etorri baiño lenago, guk geure izena emon geuntsola Palestina'ri aitzuten dabe. Eta Abraan'eri eta onen ondorengo guztiai emon jakela lur au ez dabe gogoratzen. Begin, Isaak'en semea dalako Abraan'en odolekoa ba'fa, neu be Abraan'en ondorengo naz, Ismael'en semea nazan ezkerro.

Guztiok gara Abraan'en odoleko semeak eta au gu palestinatarrontzat tamal mingarria: Juda'tarrai ainbeste errik egin dautseezan zorrak guk ordaindu bear doguzala. Eta orain Auswich'eko martirien semeen ilgai izatera eldu gara.

* * *

Zelan ikusten dozuz gerora begira, Judatar eta Palestina'tarren arteko artu-emonak? Izan leiteke obekuntzarrik?

—Eziña izango danik ez dot uste. Baiña Sion'darren burubide edo ideologiz, Israel-barruan ez da izten beste erririk bardintasunean ibilten. Euren burubideak ezin dau olakorik eroapenez artu. Guk Palestina'rako araudia gertatu geinke, erri-agintea edo demokrazia ezarri, erlejiño-bako gobernu bat ipiñi... erri batek ez besteak eskubide geiago ez daukala... Baiña Sion'darren oiñarrikko gogamen ori ez da egokia. Juda'tarren laterriaren gogamena, beste erriai biziten itzi baiño egiten ez dautseena aldatu bear da. Olan izan ezik. Talmud'ek diñoan lez, gu Juda'tar ez garanak gorrotagarri gara. Eta burubide au ez da Israel'ena bakarrik, arabiar eta palestindarren arteko ezaupidea da. Liburuetan, antzerkietan, zineetan, agertzen da arazoa. Palestina gaiaz Ann Frak'en egunerokoa edo Leon Uris'en Urteera'ren bestekorik ez dago.



A ila Elias umeen loralegian, iru-lxirriduna barrizlazen.

Beste alde batetik, dana da zurrumbillo edo nasketea. Nortzuk dira Palestina'koak? Guztiok daukagu izutzillien irudia.

* * *

— Baiña zergaitik dira Juda'tarrak ain ezagunak munduan?

— Bi milla urtetan munduan zabal, diasporan ibilli diralako, eta gu Palestina'tarrak emen egon gara. Orregaitik dauke ainbeste laguntza Europa'n eta Ameriketean.

Europa'k Juda'tarrak aldendu egin gura izan dauz eta Hitler ankerra il zan ezkerro, an geratu ziranaiu esan jakke: «Joan gura dozuen tokietara eta gugandik edozetariko laguntza artuko dozue. Euki zeinkeez izkilluak. Frantzi'tik isillean eroan guda-ontziak. Beljika'tik ur astuna, su-tximista, nuklear edo kizi-indarrezko egazkiñak. Nai dozuena emongo jatzue, baiña joan zaitez. Ori ondo artzea ete da? Ondo artze negargarria benetan!

Ainbeste Juda'tar Palestina'tarren aurka ba'dabiltz, ziorik aundiena, sartaldekoen jokabidean dago.

Suiza'ko irakasle batek asarratuta eta amurruz esan ebana datort burura: «Zuok Palestina'tarrok, Tel-Aviv, Haifa ta Jerusalem'era su-danbadak jaurti zeinkeez, baiña ez Zurich'eko egazkiñetara.

Nik Suiza'tar lagun oneri au esango neuskio: «Juda'tar edo Palestina'tar bat zauritutea baiño gurago dot, Suiza'ko edozein egazkin, utsik ba'dago lertutea. Giza-odol-tanta batek askoz geiago balio dau egazkin guztiak baiño.

LETONA'k